



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## DEBAKO UDALAREN KONTRATAZIO TXIKIARI BURUZKO TXOSTENA

LEA/AVC 439-SUST-2020

### Aurkibidea:

I. AURREKARIAK ETA XEDEA.....	1
II. LEHIA ASKEA: ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOAREN GILTZARRIA.....	3
III. KONTRATAZIO-BEHARRAK ZEHAZTEKO PLANGINTZA ETA PROGRAMAZIOA .....	5
IV. KONKURRENTZIA ETA KONTRATU TXIKIAK .....	7
1. Kontratu txikia .....	7
A. Muga kuantitatiboa.....	8
B. Denbora-muga Kontratuen iraupen-epea eta prestazioa gauzatzeko epea .....	8
C. Publikotasuna .....	8
D. Izapideak .....	8
E. Kontratua zatitzeko debekua.....	9
2. Konkurrentzia kontratazio txikietan .....	9
V. DEBAKO UDALEAN ARKITEKTURA-ZERBITZUAK KONTRATATZEA .....	10
VI. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.....	16

### Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea  
Rafael Iturriaga Nieva, kidea  
Enara Venturini Álvarez, kidea  
Ainara Herce San Martín, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), adierazi bezala osatuta, 2020ko maiatzaren 27an eginiko bileran, LEA/AVC 439-SUST-2020 espedienteari lotutako gomendio hau onartu du.

## I. AURREKARIAK ETA XEDEA

1. Debako Udalaren (udala) aurka jarritako salaketa baten berri izan du LEAk, salatzailearen ustez zuzenean esleitu zituelako Debako hilerri berriaren



eraikuntzarekin lotutako arkitektura-zerbitzuen kontratuak, eta prozedura irekiaren bidez esleitu behar ziren.

Salaketa horri dagokionez, LEKak ebatzi du, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, zehapen-prozedurarik ez hastea eta salaketa horren esparruan egindako informazio erreserbatuko jarduerak artxibatzea.

Ez da zehapen-prozedurarik hasi; izan ere, udalak, aztertutako kontratu bakoitza esleitzean, Kontratuen Legeak emandako administrazio-ahalmenak baliatuko zituen, eta esleipen horietan ez da ikusi LDLren 1. artikulua debekatutako kolusio-erabakiaren zantzurik.

2. Hala ere, LEAk egiaztatu du udalak zerbitzu arkitektonikoen kontratuak esleitzeko kontratu txikiaren figura nabarmen erabili duela. Horregatik, LEKak egokitzat jotzen du udalari gomendioak egitea kontratazio publikoko ahalmenak erabiltzeari buruz, erasandako merkatuko enpresen arteko lehia bultzatzeko, indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita. Hori guztia, udalak, kontratu txikiak konkurrentziara irekiz, interes orokorreko helburuak lortzeko beharrezkoak diren ondasunak eta zerbitzuak eskura ditzan, kalitate eta prezio onenean.
3. Gomendioak udalari zuzentzen bazaizkio ere, edozein administrazio publikori zabal dakizkioke, Kontratuen Legeak emandako kontratazio-ahalmenak erabiltzean.
4. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 3ko 1/2012 Legearen 3.3.e artikulua Lehiaren Euskal Agintaritzari merkatuetan lehia hobetzeko ematen dizkion ahalmenak erabiliz egiten dira gomendioak; zehazki, arkitektura-zerbitzuen esparruan, kontratu txikiak erabiltzean administrazio-beharrak asetzeko eta interes orokorreko helburuak lortzeko. Izan ere, administrazio publikoak erantzun egin behar dio interes orokor horri, Espainiako Konstituzioko 103. artikulua araberan.
5. Gomendioak bi ideia kardinalen inguruan egiten dira: 1) Kontratazio-behar publikoak aldeztu aurretik detektatzeko, udal-kontratazio-jarduerak planifikatu eta programatu behar da. 2) Konkurrentzia sustatzea kontratu txikietan.



## II. LEHIA ASKEA: ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOAREN GILTZARRIA

6. Kontratazio publikoari buruzko Europako zuzentarauek lehia askea ezarri dute beti funtsezko betebeharrak dela edozein kontratu-prozedura publikotan; estatu kideen barne-araudietan txertatu izan dira zuzentarauok<sup>1</sup>.

Zehazki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauak, kontratazio publikoari buruzkoak, ezarri du estatu kideetako agintariak kontratu publikoak esleitzean errespetatu egin behar dituztela, besteak beste, tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, elkarrekiko aitortpenaren, proportzionaltasunaren eta gardentasunaren printzipioak. Horiek guztiak lehia librearen printzipioetan oinarritzen dute kontratazio publikoa.

Hala, zuzentarauaren arabera, kontratazioa "ez da sortuko lehia artifizialki murrizteko asmoz". Zehazki, kontratazioa zenbait operadore ekonomikoren alde edo aurka egiteko erabiltzea debekatzen da.

7. 1995etik gaur arte, administrazio-kontratazio publikoa arautzen duten ondoz ondoko legeek lehia askea jaso dute administrazio-kontratazio publikoaren sistemaren giltzarri gisa.

Zehazki, indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (2017ko Kontratuen Legea)<sup>2</sup> 1.1 artikuluan ezartzen du:

“(....) Lege honen xedea sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea da, eta horren bidez bermatu nahi da, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikitatearen printzipioa, eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastuaren kontrolaren helburuari lotuta, ziurtatu nahi du obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeke diru-funtsak eraginkortasunez erabiliko direla, dauden premiak alde aurretik definituz, lehia askea babestuz, eta ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza hautatuz (....)”

<sup>1</sup>Ikus Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko martxoaren 31ko 2004/18/EE Zuzentaraua, obren, horniduren eta zerbitzuen kontratu publikoak esleitzeko prozedurak koordinatzeari buruzkoa. 2004ko apirilaren 30eko Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala (L 134/114), gaur egun Espainiako ordenamendu juridikoan txertatua, eta indarrean dagoen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua (kontratazio publikoari buruz), 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena. 2014ko martxoaren 28ko Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala (L 94/65).

<sup>2</sup>9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentaruaren transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (BOE, 272. zk., 2018ko martxoaren 9koa).



**8. Auzitegi Konstituzionalak lehia askearen izaera nagusia nabarmendu du kontratazio publikoan.**

“(....) administrazio-kontratazioaren arloari dagokion oinarritzko araudiaren xede nagusia, interes orokorreko beste xede batzuez gain, publizitatearen, berdintasunaren, konkurrentzia librearen eta segurtasun juridikoaren bermeak eskaintzea da, hain zuzen ere Administrazio Publiko guztiek herritarrei tratu bera ematen dietela ziurtatzeko. Gai horri buruzko EEEko Zuzentzauek helburu hori subjektiboki indartzen eta hedatzen dute, eta horietara egokitu behar da gure barneko Zuzenbidea. (.....)”<sup>3</sup>

**9. Bestalde, Auzitegi Gorenak lehia librea funtsezko elementu gisa ikusten du lizitazio publikoetan:**

“(...) Administrazio-kontratazioa gidatzen duten printzipioen artean, kontratazio publikoan aritzen diren enpresek aukera berdinak izatea dago eta kontratazio-prozedurak, 1976ko ekainaren 13ko Auzitegi Gorenaren Epaiak (JB 1976, 4068) onartu zuen moduan, interes publikoa bermatzearen alde egiten du, lizitazioaren funtsezko hiru printzipio artikulatuz: publikotasunaren, lehia librearen eta aukera-berdintasunaren printzipioak.” (Bosgarren zuzenbideko oinarria)<sup>4</sup>.

Kontratazio publikoan aplikagarriak diren funtsezko printzipioak ere azpimarratzen ditu Auzitegi Gorenak.

“Administrazio-kontratazioa gidatzen duten printzipioen artean, kontratazio publikoan aritzen diren enpresek aukera berdinak izatea dago; eta, beraz, kontratazio-prozedurak interes publikoa bermatzearen alde egiten du, lizitazioaren funtsezko hiru printzipio artikulatuz: publikotasunaren, lehia librearen eta aukera-berdintasunaren printzipioak”<sup>5</sup>.

**10. Merkatuetako lehiaren ikuspegi administratibotik, LEAk honako hau ezarri du Kontratazio Publikoari eta Lehiari buruzko Gidan:<sup>6</sup>**

“Lehiaren bidez, administrazio publikoek eta gizarteak kontratatuko dituzten ondasun eta zerbitzuei buruzko eskaintzarik onenak jasotzen dituzte, prezioari, kalitateari eta berrikuntzari dagokienez, **balio soziala eta ekonomikoa sortzen** lagunduz eta **lehia askea, lehiakortasuna eta aukera-berdintasuna bermatuz.**”

<sup>3</sup> Konstituzio Auzitegiaren 141/1993 Epaiak, apirilaren 22koa. 513/1987 eskumen-gatazka positiboa. Eusko Jaurlaritzak sustatua azaroaren 28ko 2.528/1986 Errege Dekretuari dagokionez; haren bidez aldatu zen Estatuko Kontratazio Orokorraren Erregelamendua 931/1988 Legegintzako Errege Dekretuari egokitzeko. BOE, 127. zk. Osagarria, 1993ko maiatzaren 28koa.

<sup>4</sup> Auzitegi Gorenaren 2000ko irailaren 19ko Epaiak, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 7. sekzioa. (RJ2000\7976)

<sup>5</sup> Auzitegi Gorenaren 2007ko urriaren 17ko Epaiak, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 4. sekzioa. (RC 3171/1995).

<sup>6</sup> Lehiaren Euskal Agintaritzza. Kontratazio Publikoari eta Lehiari buruzko gida. [https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/guias\\_gidak/es\\_guias/adjuntos/GUIA\\_CONTRATACION\\_COMPETENCIA\\_es.pdf](https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/guias_gidak/es_guias/adjuntos/GUIA_CONTRATACION_COMPETENCIA_es.pdf).



11. Bestalde, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN) lizitzaileen arteko lehiaren garrantzia azpimarratzen du, sektore publikoko erakundeek eta, azken batean, gizarteek kontratatutako ondasun edo zerbitzuen prezioari, kalitateari eta berrikuntzari dagokienez eskaintzarik onenak jasoko dituztela ziurtatzeko. Lehiabaldintza eskasek ahalegin ekonomiko handiagoa eragiten diete ondasunak eta zerbitzuak kontratatzen dituzten sektore publikoko erakundeei, eta, beraz, herritarrei<sup>7</sup>.

### **III. KONTRATAZIO-BEHARRAK ZEHAZTEKO PLANGINTZA ETA PROGRAMAZIOA**

12. Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademiaren hiztegiak honela definitzen du "plangintza": helburu jakin bat lortzeko plan orokorra, metodikoki antolatua eta sarritan oso zabala, hala nola hiri baten garapen harmonikoa, garapen ekonomikoa, ikerketa zientifikoa, industria baten funtzionamendua, etab.
13. Plangintza jarduera publiko guztiari dagokio berez, baita administrazio publikoaren kontratu-jarduerari ere.
14. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak honako hau ezartzen du 6.2 artikuluan<sup>8</sup>:

“Administrazio publikoek urteko eta urte anitzeko planak eta programak argitaratuko dituzte, non helburu zehatzak finkatuko dituzten, bai eta horiek betetzeko jarduerak, bitartekoak eta epeak ere. Horien betetze-maila eta emaitzak aldizka ebaluatu eta argitaratu beharko dira, neurketa eta balorazioko adierazleekin batera, administrazio eskudunak zehaztutako eran.”

15. Kontratazio publikoari dagokionez, 2017ko Kontratuen Legeak, 28. artikuluan, "Kontratuaren beharrari eta egokitasunari eta kontratazioaren eraginkortasunari" buruzkoan, 4. apartatuan ezartzen du sektore publikoko erakundeek nahitaez programatu behar dutela kontratazio publikoaren jarduera, erregulazio harmonizatuaren mende geratuko diren kontratuetan behintzat.
16. Kontratu-premien plangintza eta programazio egokiak balio du administrazio publikoek premia horiek aurreikusteko aukera izan dezaten, 2017ko Kontratuen

---

<sup>7</sup> LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA (egungo MLBN), Guía sobre Contratación Pública y Competencia, Madril, 2011.

<sup>8</sup>19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. BOE, 295 zk., 2013ko abenduaren 10ekoa.



Legean jasotako prozedura arrunten bidez, hain zuzen ere: publikotasuna, lizitatzailen sarbide askea eta lehia askea.

- 17.** Ildo horretan, Aragoiko Kontsulta Batzordeak otsailaren 13ko 3/2018 txostenean adierazi duenez, kontratu-premiak behar bezala planifikatuz gero, aldian-aldiko premiak edo premia errepikakorrak asetzeko aukera dago, kontratu txikiaren bidezko zuzeneko esleipenaz bestelako kontratazio-prozeduren bidez.

“Pentsa daiteke kontratu txikien erregulazio berriaren helburua haien erabilera saihestea dela aldian-aldiko premiei edo premia errepikakorrei erantzuteko; premia horiek beste kontratazio-prozedura batzuen bidez ase litezke, beharrezkoa den plangintza egokia balitz. Hori bat dator zenbait kontsulta-organoren edo kanpo-kontrolako organoren erabakiekin; izan ere, Kontuen Auzitegiak 2016ko apirilaren 27ko 1151/2016 txostenean –Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak 2013ko ekitaldian egindako kontratazio txikiaren fiskalizazioari buruz– azpimarratzen du kontratu txikiak ezin direla erabili aldizkako eta aurreikus daitezkeen premiei erantzuteko. Beharraren izaera errepikakorra kontratuen xede berdinetan edo gutxienez antzekoetan islatuko da; beraz, zentzu osoa du kontratazio txikiaren gehiegizko erabilera saihesteko muga kuantitatiboak kontratu mota bakoitzerako bereizita aplikatzeak.

(...) behar den kontratu-plangintzak (...) balio behar du a priori zehazteko kontratazio txikiak aurreikus daitezkeen beharrak behar bezala betetzeko balio duen (...).”

- 18.** LEKak Mañuetako, Eltziegoko, Guardiako, Lezako, Moreda Arabako, Navaridasko, Samaniegoko eta Villabuena Arabako udaletako kontratazio txikiari buruzko txostenean<sup>9</sup> azpimarratu du administrazio-kontratazioaren plangintzak garrantzi handia duela kontratu txikien erabilera prebenitzeko aldian-aldiko premiak edo premia errepikakorrak asetzeko, beste kontratazio-prozedura batzuen bidez bete baitaitezke:

“(...) kontratazioa behar bezala planifikatzeak kontratazio-organoari ahalbidetuko dio kontratazio publikoa arrazionalizatzeko sistema bat, zerbitzu jakin baten premia egonkorrak identifikatu ondoren, hala nola proiektuak idaztearena, esparru-akordioak edo prezio unitarioen arabera kontratuak unean uneko egikaritzeen arabera antolatu ahal direnean. Horrek kontratazio publiko estrategikoa ahalbidetzen du, 2014ko Erkidegoko Zuzentarauetan eta indarrean dagoen Kontratuen Legean xedatutakoari jarraikiz.(...).”

<sup>9</sup> Lehiaren Euskal Agintaritza. Mañueta, Eltziego, Guardia, Leza, Moreda Araba, Navaridas, Samaniego eta Villabuena Arabako udaletako kontratazio txikiari buruzko txostena.

[https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es\\_informes/395%20RECOM\\_ENDACI%C3%93N%20CONTRATOS%20MENORES%20RIOJA%20ALAVESA\\_web.pdf](https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/395%20RECOM_ENDACI%C3%93N%20CONTRATOS%20MENORES%20RIOJA%20ALAVESA_web.pdf)



## IV. KONKURRENTZIA ETA KONTRATU TXIKIAK

- 19.** 2017ko Kontratuen Legearen 131.2 artikulua arabera, kontratuak esleituko dira prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz oro har, zerbitzu bereziak emateko kontratuak izan ezik.

Kontrara, kontratuen legeak ez du kontratu txikia jotzen kontratuak esleitzeko ohiko mekanismotzat, eta, horregatik, salbuespenez erabili behar da.

### 1. Kontratu txikia

- 20.** Kontratu txikiak aukera ematen dio administrazio kontratatzaileari kontratua zuzenean esleitzeko, legean ezarritako zenbateko txikiagoko kasuetan.

Kontratu txikia Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko maiatzaren 19ko 13/1995 Legean txertatu zen<sup>10</sup>, eta, zioen azalpenean, kontratu mota hori indartzeko ideia azpimarratzen da, zalantzarik gabe administrazio-kontratazioa bizkortzeko, munta txikiko beharrak azkar asetzearen.

Unean-unean aplikatu beharreko kontratazio publikoko araudiek kontratu txikia jaso dute, nahiz eta hura erabiltzeko baldintzak gehitu dituzten: zenbatekoa, urtebeteko iraupena, kontratua luzatzeko debekua eta kontratua ez zatikatzea.

Hala, kontratu txikia administrazio-kontratazioaren oinarriko printzipioetatik kanpo egon da, alegia: publikotasuna, lehia askea, lizitatzailen aukera askea eta gardentasuna.

- 21.** Hala ere, 2017ko Kontratuen Lege berriak printzipio horiek indartu nahi ditu, zioen azalpenetik ondorioztatzen denez.

“[...] lortu nahi du kontratazio publikoa tresna gisa erabiltzea Europako nahiz estatuko gizarte-erlako nahiz ingurumenaren, berrikuntzaren eta garapenaren arloko politikak ez ezik, ETEak sustatzeko eta lehia defendatzeko politikak ere ezartzeko. Gai horiek guztiak legearen egiazko helburuak dira, eta une oro lortu nahi da gastu publikoaren efizientzia eta tratu-berdintasunaren, diskriminazio ezaren, gardentasunaren, proportzionaltasunaren eta osotasunaren printzipioak errespetatzea.”

Zuzeneko kontratazioa mugatzen saiatzen da, eta, horretarako, aurreko araudiarekin alderatuta, murrizketa berriak eta handiagoak ezartzen dizkie kontratu txikiei. Murrizketa horiek jarraian azalduko dira.

<sup>10</sup> 13/1995 Legea, maiatzaren 18koa, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzkoa. EAO, 119 zk., 1995ekoa.



## A. Muga kuantitatiboa

22. 2017ko Kontratuen Legeak kontratu txikitat hartzen ditu 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak, obra-kontratuak direnean, edo 15.000 eurotik beherakoak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean (118.1)<sup>11</sup>

## B. Denbora-muga Kontratuen iraupen-epea eta prestazioa gauzatzeko epea

23. Kontratu txikiak ezin du urtebete baino gehiago iraun, eta ezin da luzatu (2017ko Kontratuen Legearen 39.8 artikulua).

## C. Publikotasuna

24. Kontratu txikiei buruzko informazioa Interneteko kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da, gutxienez hiru hilean behin (2017ko Kontratuen Legearen 63.4 artikulua).

Bost mila eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak ez dira argitaratu behar, baldin eta botere adjudikatzailleek erabiltzen duten ordainketa-sistema kutxa finkoko aurrerakina edo ordainketa txikiak egiteko antzeko beste sistema bat bada.

## D. Izapideak

25. 2017ko Kontratuen Legeak, 118. artikulua bidez, ezartzen du kontratu txikiek euren kontratazio-espeditentia dutela<sup>12</sup>, eta honako hauek osatuko dutela espeditentia hori:

---

<sup>11</sup>2000. urteko APKLTBren 121. eta 201. artikuluek ezartzen zuten obra- edo zerbitzu-kontratu txikien zenbatekoa ezin zela 5.000.000 pezeta (30.050,61 euro) edo 2.000.000 pezeta (12.020,24 euro) baino handiagoa izan, hurrenez hurren.

30/2007 Legeak, 122. artikuluan, eta 2011ko SPKLTBk, 138. artikuluan, ezartzen zuten ezen kontratu txikien zenbatekoa 50.000 eurotik beherakoa izango zela obra-kontratuak direnean, edo 18.000 eurotik beherakoa beste kontratu batzuk direnean.

<sup>12</sup> Premiazko neurrien otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetatik lehenengoak emandako idazketa (Espainiako ordenamendu juridikoan zenbait sektoretako kontratazio publikoaren, aseguru pribatuen, pentsio-plan eta -funtzen, zerga-esparruaren eta zerga-auzien arloko Europar Batasuneko hainbat zuzentarau sartzan dituen). Azken xedapenetako lehenengoaren bidez, aldatu egiten da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 118. artikulua. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentzarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.





- Kontratazio-organoaren txostena, arrazoiak emanda justifikatuz kontratua beharrezkoa dela eta kontratuaren xedea ez dela aldatzen ari lege-mugak aplikatzea saihesteko.
- Aurreko txostena ez da aplikatuko kutxa finkoko aurrerakinen sistemaren bidez edo ordainketa txikiak egiteko antzeko sistemaren baten bidez ordaintzen diren kontratuetan, baldin eta kontratuaren balio zenbatetsia 5.000 eurotik gorakoa ez bada.
- Gastua onartzea eta dagokion faktura bertan sartzea; faktura horrek legea garatzeko arauak ezartzen dituzten baldintzak bete beharko ditu.
- Obra-kontratu txikietan, obren aurrekontua ere gehitu beharko da, eta dagokion proiektua ere izan beharko da, indarrean dauden xedapenek horrela eskatzen dutenean.

## **E. Kontratua zatitzeko debekua**

- 26.** 2017ko Kontratuen Legeak berariaz debekatzen du kontratua zatitzea kontratuaren zenbatekoa murrizteko eta, horrela, publikotasun-baldintzak edo esleipen-prozedurari dagozkionak saihesteko,. (99.4. art.)
- 27.** Kontratuak zatitzea, kontratu txikiaren irudia erabiliz, ohikoa izan da; batzuetan, administrazio-kontrataziora bideratutako baliabide nahikorik ez dagoelako, bereziki toki-korporazioetan, eta beste batzuetan, kontratazioaren plangintzarik ez dagoelako. Nolanahi ere, kontratuak zatikatzeak kontratazio publikoaren oinarriko printzipioen aplikazioa saihestea ekar dezake, batez ere, lizitazioetarako sarbide askearen, tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta lehia askearen printzipioak.
- 28.** Beraz, kontratu txikiak kontratatzekeo tresna izan behar du denboran luzatzen ez diren premia puntualak daudenean, eta, horregatik, kontratu publikoaren modalitate hori arautzen duten xedapenek interpretazio zorrotza izan behar dute; bestela, urratu egingo lirakeke administrazio-kontratazioa inspiratzen duten printzipioak, aurreko 1. apartatuan aztertuta: lizitazioetan parte hartzeko askatasuna, publikotasuna, berdintasuna, gardentasuna, lehia askea babestea, etab.
- 29.** Adierazi dugun bezala, kontratazio txikiko espedientea osatzen duten elementuen artean, kontratazio-organoaren txostena sartu behar da, arrazoiak emanda justifikatuz ez dela aldatzen ari lege-mugak aplikatzea saihesteko.

## **2. Konkurrentzia kontratazio txikietan**

- 30.** Europar Batasunaren 2014ko zuzentarauek eta horien transposizioari buruzko 2017ko Kontratuen Legeak lizitatzailleek aukera askeari, berdintasunari, publikotasunari, gardentasunari eta lehia askeari buruzko printzipioak indartu dituzte. Kontratu txikia malgutasunez eta arin izapidetzea bateragarria da publikotasunarekin



eta lehiarekin, are gehiago, lehen azaldu bezala, printzipio horiek estatuaren eta Europar Batasunaren administrazio-kontratazioaren sisteman funtsezkoak baitira.

31. Horregatik, kontratazio publikoaren oinarrizko printzipio horiek lortzeak kontratu txikietan lehia sortzea ekarri behar du, ondasunak eskuratzea, obrak kontratatzea eta zerbitzuak ematea ekonomia- eta kalitate-baldintza onenetan lortzeko.
32. Puntu honetan, Aragoiko Autonomia Erkidegoak munta txikiko sektore publikoko kontratuak bizkortzeko, arrazionalizatzeko eta gardenak izateko egindako erregulazioa aipatu behar da, kontratuaren publikotasuna sustatzen baitu kontratu txikietan lehia sortzeko.

Hain zuzen ere, 1/2018 Lege Dekretuak, martxoaren 20koak, sektore publikoko munta txikiko kontratuak bizkortu, arrazionalizatu eta gardentzeko premiazko neurriei buruzkoak<sup>13</sup>, ezartzen du kontratu txikien lizitazioa, munta edozein dela ere, kontratatzailearen profilean argitaratu ahal izango dela.

Kasu horretan, proposamenak aurkezteko epea ez da bost egun baliodunetik beherakoa izango, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Iragarkian, kontratuaren xedea eta hura osatzen duten prestazioak identifikatuko dira, bai eta esleipen-irizpideak eta kontratua gauzatzean kontuan hartu beharreko edozein inguruabar ere. Jarduteko gaitasuna duen eta prestazioa emateko behar den lanbide-gaikuntza duen edozein enpresaburuk aurkeztu ahal izango du proposamena.

## **V. DEBAKO UDALEAN ARKITEKTURA-ZERBITZUAK KONTRATATZEA**

33. Udalak LEAri eman dizkion datuetatik ondorioztatzen da udalak arkitektura-zerbitzuen 37 kontratu esleitu dituela 2000tik 2019ra; horietatik 17 kontratu txiki gisa esleitu dira, 2 prozedura irekiaren bidez eta 2 publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez. Gainerakoetan, 16, udalak ez du esleipenerako erabilitako prozedura identifikatu. I. eranskinean kontratuen zerrenda ezartzen da eta, ondoren, gertakari nagusiak deskribatzen dira.
34. 1994ko azaroan, GAIN, Urbanismo e Ingenieria Civil SA enpresak, Udalaren enkarguz, Debako hilerri berria kokatzeko bost aukera kontuan hartzen zituen azterlan bat egin zuen.

---

<sup>13</sup> 1/2018 Lege Dekretuak, martxoaren 20koak, sektore publikoko munta txikiko kontratuak bizkortu, arrazionalizatu eta gardentzeko premiazko neurriei buruzkoak, kontratu txikien lizitazioa ezartzen du munta edozein dela ere. Aragoiko Aldizkari Ofiziala, 57. zk., 2018ko martxoaren 21ekoa.



- 35.** 1996. urtean, Udalak ideia-lehiaketa baterako deialdia egin zuen, udal-hilerri berri baten proiektuaren idazketa egiteko xedearekin. Ideia-lehiaketaren deialdiak aurreikusten zuen ondoren esleitzea Debako hilerri berriaren oinarrizko proiektua idazteko eta egikaritzeko kontratua.

Udala bi aukeraren artean zegoen: hilerri berri bat eraiki edo lehendik Arrillagan dagoena handitu. Lehiaketan parte hartzen zutenek bi aukeretako batekin –edo biekkin– lotura zuten ideiak aurkeztu behar zituzten.

Berria eraikitzea hautatuko balitz, hilerriaren tipologia honelakoa izan behar zukeen: hobiratzeak panteoietan eginda, eta ahalik eta landare-azalera handienarekin, parke modura.

- 36.** Udalak hainbat profesional gonbidatu zituen aipatutako ideia-lehiaketan parte har zezaten eta, aurkeztu zirenen artean, hurrengo profesional hauek aurkeztutako ideiak geratu ziren finalista:

- XXX
- GAIN eta XXX
- XXX eta XXX.

- 37.** Udalak, 1997ko otsailaren 6an egindako Gobernu Batzordearen erabakiaren bidez, XXX arkitektoak aurkeztutakoaren alde egin zuen ideia-lehiaketan. Era berean, lehiaketan parte hartu arren hautatua izan ez zen parte-hartzaile bakoitzari 125.000 pezeta ordaintzeko erabakia hartu zen. Azkenik, parte-hartzaile guztiei opari bana emateko akordioa hartu zen, lehiaketan parte hartzeagatik eta egindako lanengatik esker ona adierazteko.

Bilkura berean, Gobernu Batzordeak erabaki zuen arkitekto beraren esku uztea hilerri berria eraikitzeko bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterlan bat idazteko lana. Kontratuaren zenbatekoa 810.000 pezeta izan zen. (BEZa barne)

- 38.** 1998ko urriaren 9an, udalak, gobernu-batzordearen erabakiaren bidez, Istiñan hilerri berri bat eraikitzeko oinarrizko proiektua idazteko eta gauzatzeko lanak ideia-lehiaketaren irabazleari esleitzea erabaki zuen; zenbatekoa: 7.284.680 pezeta. (BEZa barne).

- 39.** 1998an, Debako Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala jarri zuen udalak abian, hain zuzen ere, Istiñako hilerri berria jasota gera zedin udal-plangintzan eta sistema orokor gisa.

Aipatutako aldaketa hori behin betiko onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA), 1999ko abenduaren 21eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez. Onartutako



aldaketan, komunitate-ekipamenduko sistema orokor bat definitu zen: hilerri berri bat lurzoru urbanizaezinean, Istiña aldean.

40. Gipuzkoako Foru Aldundiak arau subsidiarioen aldaketa puntuala behin betiko onartzeko hartutako erabakiaren aurka berraztertzeke errekurtsua jarri zuen JBGk. Errekurtsu hori 2000ko uztailaren 18an ezetsi zen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez. Erabaki horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri zuen errekurtsogileak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko (EAEAN) Administrazioarekiko Auzien Salan, eta uztailaren 23ko 750/2002 Epaiak aintzat hartu zuen errekurtsua. Horrela, 1999ko abenduaren 21ean lurzoru urbanizaezinean (Istiña aldea) hilerri berriko ekipamendu komunitarioko sistema orokorra definitzeko plangintza orokorreko arau subsidiarioen aldaketa baliogabetu zen.
41. 2002an, udalak Debako Arau Subsidiarioen berrikuspenari ekin zion. Berrikuspen hark hilerri berria jasotzen zuen, Artzabalen, 8. sistema orokor gisa.
42. 2003an, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak (EHAEO) Debako hilerri berriaren oinarritzko proiektua eta egikaritzea ikus-onetsi zituen. Biak ala biak 1996ko ideia-lehiaketaren irabazleak idatzi zituen, zeinak esleituta baitzeukan kontratua 1998an.
43. 2007ko urriaren 16an, GFak behin betiko onartu zuen Debako Udal Plangintzaren Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina (2007ko Arau Subsidiarioen TB), eta onarpen-erabakia 2007ko abenduaren 17an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
44. Hau da 8. SISTEMA OROKORREKO HIRIGINTZA-FITXA. DEBAKO HILERRIA, DEBA ALDEA:
  - “1. HIRIGINTZA-INFORMAZIOA. AURREKARIAK.
    - 1.1. HIRI-EGITURA,  
Deba hiriguneko hilerria.  
8.0.9.rekin batera (Itziarko hilerria), lurraldearen egitura organikoa konfiguratzeko duen elementu modura eratzeko da.
    - 1.2. ESPARRUAREN AZALERA. 11.603 m<sup>2</sup>
  2. HIRIGINTZA-ARAUBIDEA.
    - 2,1. LURZORUAREN SAILKAPENA: Urbanizaezina
    - 2,2. KALIFIKAZIO GLOBALA: Zerbitzu publikoen komunitate-ekipamendurako gunea (11. artikulua:G8)



2,3. EREMUEEN MUGAKETA: Hilerri guztiak batasun morfologiko bat osatzen du, eta, hortaz, eremu bakarra da

### 3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK.

Hirigunearen barruan geratu den Amillagako hilerri zaharra lekualdatzeko aukera posible egitea zenbait araudi sektorial betetzea lortzeko, hala nola, Hileta Poliziari buruzkoa edota Irisgarritasun Legea. Hilerria zedarriztat hartzea bai lurraldean eta bai udal-antolamenduan, eta lursailera egokitzea hilerri irekiaren irizpideak errespetatuz; hau da, «lorategi» edo «parke» gisa.

#### 3,1. KALIFIKAZIO XEHATUA.

Orientazio gisa.

Bideak eta aparkalekuak 451 m<sup>2</sup>

Programatutako eraikuntza 1.460 m<sup>2</sup>

Hobiratze-lorategia 3.731 m<sup>2</sup>

Berdegunea 4.600 m<sup>2</sup>

Sarbidea eta oinezkoen ibilbideak 352 m<sup>2</sup>

Joan-etorrien bizikidetzako sarbidea 378 m<sup>2</sup>

#### 3,2. ORDENANTZA XEHATUAK.

Hileta Poliziaren Legeari, urriaren 19ko 202/2004 Dekretuari eta azken honen Eranskinari buruzkoak (2004ko azaroaren 18ko EHAA).

#### 3,3. APROBETXAMENDU-, ERAIKUNTZA-, JABETZA- ETA ERABILERA-BALDINTZAK.

Aprobetxamendua. Ekipamendua.

Eraikuntza. Berria: Arkitektura-proiektuaren beharrezkoen arabera.

Jabaria. Publikoa.

Erabilera. Hileta Poliziaren Legearen, urriaren 19ko 202/2004 Dekretuaren eta azken honen Eranskinaren arabera (2004ko azaroaren 18ko EHAA). (.....)

#### 3,4. EKIPAMENDU-, URBANIZAZIO- ETA KUDEAKETA-BALDINTZAK.

Kasuan kasuko obra-proiektuen arabera. Handitzeen kasuan, behar diren lursailak Desjabetzeko Sistema. Egin beharrezko handitzea egiteko eremu mugakideak gehitzeak ez du ekarriko aldaketarik plangintzan, ezta lurzorua berriro sailkatu beharrik ere.

Antolatutako esparruaren barruan ur-ibilgurik ez dagoen arren, proiektu teknikoak eta lanen garapenak lurraren iragazgaitasuna eta lixibatuen kontrola bermatu beharko dute, honako irizpide hauetan oinarrituta:

Lurraren iragazgaitasuna arrazoi hauengatik:

Egon litezkeen eragin posibleak saihesteko, proiektuak lursailean hesi iragazgaitza sortzea proposatuko du, lurzoruen eta lurpeko uren babesa ziurtatuko duten balizko iragazketak eragozteko.

Aipatutako hesi iragazgaitzak Eusko Jaurlaritzak material inerteak eta inertizatuak kudeatzeko ezarritako eskakizunak bete beharko ditu (Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta



Ingurumen Sailaren 1994ko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuaren 6. artikulua eta aipatutako sail bereko sailburuaren 1995eko otsailaren 15eko agindua); izan ere, araudi horrek adierazten du 10-5 m/s eta 10' m/s bitarteko iragazkortasun-balioak daudenean, beharrezkoa izango dela lursaila iragazgaiztea edo behar bezala egokitzea, lursailaren iragazkortasuna 10-7 m/s-tik behera murrizteko xedez. Halaber, Europako Araudiak ezarritako baldintzak ere bete beharko ditu. Araudi hori 1996ko otsailean argitaratu zen Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean. Berorretan, gainera, hondakin inerteen zabortegetan 10-7 m/s-ko edo gutxiagoko iragazkortasun-koefizientea eskatzen da, metro beteko lodieran. (...).”

- 45.** 2007ko Arau Subsidiarioen TBren behin betiko onarpen-erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zen EAEko Justizia Auzitegi Nagusian. Errekurtsogileak adierazi zuenez, 2007ko Arau Subsidiarioen TBko 8. Sistema Orokorra 1999ko abenduaren 21eko Arau Subsidiarioen Aldaketak bere garaian aurreikusitako azalera-esparru berean zegoen, aldaketa hura Salaren 750/2002 epaiak baliogabetu bazuen ere. Errekurtsogileak 2007ko Arau Subsidiarioen TB baliogabetzea eskatu zuen, 8. Sistema Orokorren (Artzabalgo hilerri berria) definizioari dagokionez.

EAEJANek 21/2010 epaia eman zuen, urtarrilaren 18an. Epai horretan ezezkoa eman zion aipatutako errekurtsoari eta zuzenbidearekin bat zetorrela adierazi zuen errekurritutako Arau Subsidiarioen berrikuspena, Debako hirigintza-plangintzan hilerri berria 8. Sistema Orokor gisa definitzeari dagokionez.

EAEJANek emandako epai horren aurka kasazio-errekurtsoa jarri zen Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan, eta hark 2012ko maiatzaren 31n emandako epaian, kasazio-errekurtsoa jartzeko aukerarik ez zegoela ebatzi zuen.

- 46.** Udalak ez zituen burura eraman 2003an ikus-onetsitako hilerri berriaren oinarrizko proiektua eta egikaritzea.
- 47.** 2015ean, Udalak txosten bat enkargatu zion XXX arkitektoari Debako hilerriak izan zezakeen kokapen berri bati buruz. Sabai Arkitektoak SLPk idatzi zuen txostena. Mandatu horren zenbatekoa 2.400 eurokoa izan zen (BEZik gabe).
- 48.** Udalak, udal-arkitektoak erretiroa hartu zuenez, hirigintza-aholkularitzako kontratua lizitatu zuen publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez. Udalak, honako hauek gonbidatu zituen esandako lizitazioan parte har zezaten: XXX, Toledo Taldea, XXX eta XXX. 2015eko abenduan, aipatutako kontratua XXX esleitu zitzaion.



- 49.** 2017an, udalak hilerri berriari buruzko erakusketa publiko bati ekin zion<sup>14</sup>. Horretarako, aurkezpen bat egin zuen 2017ko uztailaren 19an. Haren iragarpena egitean, Udalak honako hau adierazi zuen:

«Hilerriarentzat kokapen berria bilatzeko beharraz asko hitz egin da aspaldi honetan eta denborak aurrera egin duen heinean hainbat aldaketa egon dira gai honen inguruan (kokagunea, tamaina...)

Amillaga eremuaren garapen urbanistikoa dela eta, ezinezkoa da egungo kokapenari eustea, eta, beraz, udalak egungo premiekin bat datorren proiektu bat egin du, ehorzketa motei, eskaini beharreko zerbitzuei eta abarri dagokienez.

Aurkezpenean, hilerriaren arazoak 1993tik izan duen bilakaera aztertuko da; izan ere, urte horretan, hilerri berria Deban kokatzeko aukeren azterketa egin zen. Horren ondoren, proiektu berria uda-plangintzan nola sartu den, egungo kokapenaren arazoak zeintzuk diren, honek izan duen bilakaera eta azken 15 urteetan izandako aldaketak azalduko dituzte; aurkezpena proposamen berri honen azalpenekin bukatuz.

Proposamen berri honek Debako hilerriko hobiratzeak egungo egoerara egokitzea bilatzen du, bai eta eskaintzen dituen zerbitzuak oraingo beharretara egokitzea (horma-hilobiak, kolunbarioak...) edota agur edo oroimen esparruak sortzea ere ahalik eta ikuspegi pluralenetik eta berdintasunezkoenetik. (...).”

- 50.** 2018ko martxoaren 8an, udalak, 31/2018 Alkatetza Dekretuaren bidez, XXX arkitektoari enkargatu zion 2018ko proiektua idatzi zezan Artzabalen eraikitze<sup>15</sup>. Esandako Dekretuak egun Arrillagan dagoen Debako hilerriaren kokalekua aldatu beharra adierazten zuen, eta kontratu txikiaren definizioa eman zion, 18.000 euroko zenbatekoarekin (BEZik gabe).

Udalak XXX arkitektoak aurkeztutako eskaintza kontuan hartuta zehaztu zuen kontratuaren zenbatekoa. Eskaintako zerbitzuaren xedea Debako hilerri berriaren oinarritzko proiektua idaztea eta egikaritzea zen, Artzabalen, eta eskaintza ekonomikoa 18.000 eurokoa izan zen.

Proiektua Sabai Arkitektoak SLPk idatzi zuen 2018ko apirilean, EHAEOK oniritzia eman zion urte bereko maiatzaren 9an, eta 2018ko maiatzaren 22an aurkeztu zitzaion Udalari.

- 51.** Udalak 2019an lizitatu zituen, prozedura ireki sinplifikatuaren bitartez, Debako hilerri berria eraikitze lanak. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 1.773.738,74 eurokoa izan da.

<sup>14</sup> DEBAKO UDALA. <https://www.deba.eus/es/actualidad/noticias/el-ayuntamiento-presentara-el-proyecto-del-nuevo-cementerio>.

<sup>15</sup> Artzabalgo esparrua 8. Sistema Orokor gisa –«Istiñako hilerria»– identifikatzen da udal-plangintzan.





- 52.** Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren (HKEE) osoko bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, behin betiko onartu zuen Debako Udalaren eta berorren tokiko erakunde autonomoen 2008ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatzeko txostena. Erabaki horren iritzi-atalean, 8. puntuari, honako hau ezartzen da:

“Udalak hirigintzaren arloan aholkularitza emateko administrazio-kontratu bat sinatu zuen arkitekto batekin, 2006ko ekitaldian. Horrez gainera, eta aurreko kontratuan aurreikusita egon gabe, arkitektoak Agirre jauregiko obrekin lotura duten proiektuak lantzeko eta zuzendaritza fakultatiboak egiteko gastuak fakturatu ditu, APKLTBn edo Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean (aurrerantzean, SPKL) ezarritako prozeduretatik kanpo, 93, 42 eta 74 mila eurokoak 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldietan, hurrenez hurren.”

HKEEek emandako iritzi horri dagokionez, udalak honako hau adierazi zuen:

“– Aholkularitza-kontratua arkitektoarekin:

Agirre jauregia: zenbatekoak:

- 2007: 93.000 euro.
- 2008: 42.000 euro.
- 2009: 74.000 euro.

Udal-arkitekto aholkulariak Agirre jauregiarekin zerikusia zuten proiektuei eta zuzendaritza fakultatiboari buruz egindako fakturazioari dagokionez, esan behar da, 2006ko maiatzean, udalak eta birgaitze-lanak zuzentzen zituzten arkitektoek kontratua deuseztatu zutela, bi aldean adostasunez. Ondoren, eta Foru Aldundiko Kultura Sailak proposatuta, proiektuaren azterketa bat eta konponbiderako proposamen bat eskatu zitzaizkion udal arkitekto aholkulariari, katalogatutako eraikinak birgaitzeko eta berreraikitzeke lanetan esperientzia handia baitzuen, eta Foru Aldundiak onartu egin zuen. Udal arkitekto aholkulariak idatzitako proiektuak (EHAEOn 2007ko irailaren 19an ikus-onesia) hitzez hitz adierazi zuen: "aurreko arkitektoek garatutako proiektuaren jarraipena da, eta aurretik izapidetutako udalaren onespen bera du". Edozein moduz ere, EHAEOk ezarritako tarifak aplikatu ziren.”

## VI. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

- 53.** Kontratu txiki bidez esleitutako kontratu asko erraz aurreikus zitezkeen prestazioen ingurukoak ziren, hala nola oinarrizko proiektuak idaztea eta gauzatzea, barne-eraberritzea, berriz urbanizatzeko, eraberritze-proiektua, irisgarritasunaren gauzatze materialaren zuzendaritza, etab. Gainera, beharizan bera asetzera bideratutako prestazioak dituzten zerbitzu arkitektonikoen hainbat kontratu egiaztatu dira.
- 54.** Hori da arkitektura-zerbitzuen kontratuen kasua, Debako hilerri berriaren eraikuntzari dagokionez.

Debako hilerri berriaren eraikuntzari dagokionez, zerbitzu arkitektonikoak kontratatuzeko beharrak ez dira berriak udalarentzat, eta, horregatik, erabat aurreikus zitezkeen. Kontuan izan behar da 1996an beste hilerri bat eraikitzeke ideia-lehiaketa baterako deialdia egin ondoren, udalak 1998an hura irabazi zuen arkitektoari esleitu





ziola Debako hilerri berria egiteko lehen oinarrizko proiektua idaztea. Azkenean, udalak ez zuen gauzatu lana, udalerriko ehorzketa-beharrak aldatu zirelako.

55. Udalak Debako hilerri berria eraikitzeko ideiarri berriro heldu zion, eta 2018an zerbitzu arkitektonikoen kontratu txiki hauek esleitu zituen: 1) Debako hilerri berriaren oinarrizko proiektua eta gauzatzea (18.000,00 euro+BEZa). 2) Debako hilerri berriaren proiektua jendaurrean jartzea (6.000,00 euro + BEZa). 3) Artzabalen, Debako hilerrian, obrak gauzatzeko zuzendaritza (18.000+BEZa).

Udalak, Kontratuen Legearen espiritua eta agindua bermatze aldera, Kontratuen Legean ezarritako prozedura arrunten bidez lizitatu behar zuen, eta, hala badagokio, legez bateragarriak diren prestazioak kontratu bakar batean sartu ahal izango zituen, eta, horrela, prezio eta kalitate hobeaz baliatu.

56. LEKak adierazi bezala<sup>16</sup>, kontratu txiki bat zuzenbidearen aurkakoa da baldin eta kontratazio-organoak, kontratua izapidetzen hasteko unean, jada baldin badaki behar bezala definitutako eta urtez urte gauzatu beharreko prestazio unitario bat kontratatu behar dela, bai eta prestazio hori, egin behar dela jakin ez arren, arrazoiz aurreikusteko modukoa bada ere. Eta, horretarako, kontratazioa behar bezala planifikatu behar da. Plangintza horrek, kontratazioaren oinarri diren printzipioak hobeto errespetatzen laguntzeaz gain, funts publikoen erabilera eraginkorra bermatzen laguntzen du. Kontratazioa planifikatzeak prestazioak estaltzeko aukera desberdinak planteatzea ahalbidetzen du, bai eta kudeaketa-gastuetan aurrezteak ere.

57. Ondorioz, udalak zentzuz aurreikus zitezkeen jarduketan plangintza egokia egin ahal izan zuen eta egin behar izan zuen, eta arkitektura-zerbitzuak kontratatu, Kontratuen Legearen prozedura arrunten bidez (irekia, ireki sinplifikatua edo murriztua). Prozedura horiei esker, hainbat eskaintza jaso ahal dira, eta, ondorioz, efizientzia handiagoz erabili ahal izan ziren funts publikoak, lehia askerako inolako oztoporik gabe.

58. Hori dela eta, udalak **kendu egin beharko ditu lehia askerako oztopoak** kontratu txikiak arkitektura-zerbitzuei buruzko behar publikoak asetzeko erabiltzen dituenean, Sektore Publikoko Kontratuen Legean (9/2017 Legea) ezarritakoarekin bat etorrira.

59. Lehia askeari oztopoak kentzeko, Lehiaren Euskal Kontseiluak honako hau gomendatzen dio Debako Udalari:

---

<sup>16</sup> Mañuetako, Eltziegoko, Guardiako, Lezako, Moreda Arabako, Navaridasko, Samaniegoko eta Villabuena Arabako udaletako kontratazio txikiari buruzko txostena.



**LEHENENGOA.-** Aurrekontu-ekitaldian udalaren kontratu-jarduera planifikatzea eta programatzea, kontratu txikia prestazio errepikakorretarako edo aurreikusteko moduko prestazioetarako erabil ez dadin.

**BIGARRENA.-** Legeak ezarritako kontratuak esleitzeko prozedura arruntak erabiltzea, prestazio errepikakorretarako edo aurreikusteko moduko prestazioetarako, nahiz eta zenbatekoak txikiak izan.

**HIRUGARRENA.-** Kontratu txikia premiazko prestazioetarako erabiltzea (prestazio errepikakorrek eta aurreikusteko moduko prestazioak ez direnak), 2017ko Kontratuen Legearen 118. artikuluan ezarritako moduan.

**LAUGARRENA.-** Kontratu txikietan lehia sustatzea, espedientean sartu beharreko hiru aurrekontu eskatuz.

**BOSGARRENA.-** Hiru hilean behin argitaratzea kontratatzailearen profilean 5.000 euroko edo hortik gorako balio zenbatetsia duten kontratu txiki guztiak, eta honako hauek zehaztu beharko dira: xedea, iraupena, esleipenaren zenbatekoa eta esleipenduna.

## I. ERANSKINA

LEAk eskatuta udalak eman dituen datuetatik eta informazio erreserbatuko espedientetik eratorritako datuetatik ondoriozta daiteke udalak arkitektura-zerbitzuen kontratu hauek esleitu dituela 2000tik 2019ra:

<b>DEBAKO UDALA, ARKITEKTURA-ZERBITZUEN KONTRATUAK 2000-2019</b>				
<b>URTEA</b>	<b>KONTRATUAREN XEDEA</b>	<b>AURREKONTUA</b>	<b>ADJUDIKAZIODUNA</b>	<b>ESLEITZEKO PROZEDURA</b>
2001(2001SCOU0003)	"AZOKA PASEALEKU PUBLIKOA" ERAIKINA BIRGAITZEKO PROIEKTUA	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	LABEIN TEKNOLOGIA ZENTROA	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>



2001 (2001SCOU0004)	DEBAKO LERSUNDI KALEA ZOLATZEKO OBRA AZTERTZEA	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	LABEIN, S.L.	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>
2001 (2001SCOU0005)	DEBAKO ARAKISTAIN PLAZA URBANIZATZEKO PROIEKTUA	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	XXX	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>
2001 (2001SCOU0005)	ITZIARKO AMA BIRJINAREN SANTUTEGIA EGOKITZEKO PROIEKTUA	2.419.669 pezeta. + BEZa	XXX	LEHIAKETA
2002 (2002SCOU0006)	AGIRRETXE POLIGONOA BIRURBANIZATZEKO PROIEKTUA	7.750.000 pezeta+BEZa	CHAVARRI Y ASOCIADOS, S.L. Y ENDARA INGENIEROS, S.L.	KONTRATU TXIKIA
2002 (2002SCOU0002)	ITZIAR AUZOKO ESPALOA EGITEKO OBREI BURUZKO PROIEKTU TEKNIKOA	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	INJELAN, S.L	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>
2002 (2002SCOU0009)	DEBA IBAIKO PADUREN ETA ERRIBERAREN INGURUMENA LEHENGORATZEKO PROIEKTUA	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	HIDTMA, HIDRAULICA Y MEDIO AMBIENTE	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>
2002 (2002SCOU0013)	ASTILLERO KALEKO ETXABEETAN LIBURUTEGIRAKO LOKALA PRESTATZEKO PROIEKTUA	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	XXX	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>
2004 (2004RUR0001)	PILOTALEKUA URBANIZATZEKO PROIEKTUA, 10. EREMUA, LOJENDIO	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	XXX	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>
2004 (2004SCOU0009)	N-634 INTERSEKZIOAREN AURREPROIEKTUA, GI 3295 ITZIARREN	17.799,00 EURO	INJELAN, S.L.	PUBLIZITATERIK GABEKO NEGOZIATUA
2004 (2004SCOU0005)	UDALETXEAREN ETA JASOGAILUAREN OBREN PROIEKTUA	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	XXX	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>
2004 (2004SCOU0010)	DEBAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	SABAI	LEHIAKETA
2005 (2005SCOU0005)	DEBA POLIKIROLDEGIAREN ATZEKO FATXADAKO LUR- ERAUZKETAN EZPONDA EGONKORTZEKO ERAIKUNTZA-PROIEKTUA	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	IKERLUR	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>
2005 (2005SCOU0006)	MUSIKA ESKOLA BERRIA GAUZATZEKO AURRETIKO AZTERLANAK	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	GAZ ARKITEKTOAK	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>
2005 (2005SCOU0008)	GUDARIEN PLAZAREN PROIEKTUA	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	XXX Y XXXX (SABAI ARKITEKTOAK)	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>
2005 (2005SCOU0009)	ESTALITAKO FRONTOIA EGITEKO GAUZATZE- ETA ZUZENDARITZA-PROIEKTUA ETA LAN OSAGARRIAK. 10. EREMUA, LOJENDIO	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	ALDI BATERAKO ENPRESA- ELKARTEA (GAZ ARKITEKTOAK, XXX)	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>
2005 (2005SCOU0015)	SISTEMA OROKORRAREN GARAPENERAKO PLAN BEREZIA	11.994,00	SABAI ARKITEKTOAK	KONTRATU TXIKIA
2006 (2006SCOU0002)	UDAL IGERILEKUEN AURRETIKO AZTERLANAK	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	GAZ ARKITEKTOAK	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>
2006 (2006SCOU0007)	AGUIRRE JAUREGIA MUSIKA ESKOLAREN OINARRIZKO PROIEKTUA ETA GAUZAPENA	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	XXX Y XXX ARQUITECTOS	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>
2006	AGUIRRE JAUREGIRAKO AHOLKULARITZA- KONTRATUA	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	XXX	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>
2007 (2006SCOU0010)	DEBAKO UDALETXEAREN FORUEN PLAZA URBANIZATZEKO PROIEKTUA	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>	SABAI ARKITEKTOAK	<i>Udalak eman ez duen informazioa</i>



2015	HILERRIAREN KOKALEKU BERRIAREN GAINEKO TXOSTENA	2400	SABAI ARKITEKTOAK	KONTRATU TXIKIA
2015	HIRIGINTZA-AHOLKULARITZAKO ZERBITZUA	60.000,00	XXX	PUBLIZITATERIK GABEKO NEGOZIATUA
2016	PROIEKTUA ETA OBRA-ZUZENDARITZA ERRETIRATUEN ETXEAN. BI FORJATU ERAIKITZEA	3800+BEZa	CBA ARQUITECTOS-XXX	KONTRATU TXIKIA
2016	HEZETASUNA KONPONTZEKO PROIEKTUA IBEDROLAREN LOKALEAN (ITU KALEA 4-6)	10394,66+BEZa	ESTUDIO XXX	KONTRATU TXIKIA
2017	«KASETA BELTZA» PROIEKTUA IDAZTEA	5017,35+BEZa	XXX	KONTRATU TXIKIA
2018	OINARRIZKO PROIEKTUA ETA DEBAKO HILERRI BERRIA ERAIKITZEA	18000+BEZa	XXX	KONTRATU TXIKIA
2018	HONDARTZAKO PASEALEKUKO ALTERNATIBEN AZTERKETA	2500+BEZa	XXX	KONTRATU TXIKIA
2018	HONDARTZAKO PASEALEKUKO ALTERNATIBEN AZTERKETA	2500+BEZa	XXX	KONTRATU TXIKIA
2018	DEBAKO HILERRIKO OBRAK EGITEKO ZUZENDARITZA ARTZABALEN	18000+BEZa	XXX	KONTRATU TXIKIA
2018	JENDAURREKO ERAKUSKETA: ARTZABALEN, DEBAKO HILERRI BERRIAREN PROIEKTUA	6000+BEZa	XXX	KONTRATU TXIKIA
2018 2018SCOU0024	EGUNEKO ZENTROKO IRISGARRITASUNA ETA EBAKUAZIOA HOBETZEKO PROIEKTUA	15000+BEZa	CBA ARQUITECTOS	KONTRATU TXIKIA
2018 2018SCOU0019	DEBAKO ANGULERO KALEA BERRIZ URBANIZATZEKO PROIEKTUA	12980+BEZa	INJELAN, S.L.	KONTRATU TXIKIA
2018 2016SCOU0008	DEBAKO ASTILLERO ETA OSIO KALEAK BERRIZ URBANIZATZEKO PROIEKTUA	907,5, BEZa barne.	XXX , XXX, XXX, XXX INJELAN, S.L.	KONTRATU TXIKIA
2019	EGUNEKO ZENTROKO IRISGARRITASUNA ETA EBAKUAZIOA HOBETZEA GAUZATZEKO ZUZENDARITZA	6183,30+BEZa	XXX	KONTRATU TXIKIA
2019 2019UDPR0002	DEBAKO UDALETXEAREN BARRUKO ERABERRITZEA	14500+BEZa	XXX	KONTRATU TXIKIA
2019 2019UDPR003 2018SCOU0031	DEBAKO HONDARTZAKO ETA ITSASADARREKO ITSAS PASEALEKUA BERRITZEKO ETA HOBETZEKO PROIEKTUA. AURREPROIEKTUA ERAKUSTEA	2500+BEZa	XXX Y XXX	KONTRATU TXIKIA